

EDABE MAJIKOAREN BILA

Orain dela urte asko herri txiki batean Aner izeneko mutil bat bizi zen, beso bakarra zuen eta moztutako besoa beti odoletan zuen. Pertsona maltzurra eta ideia ilunak zituen. Oso plan txarra zuen eta ez duzue sinistuko zer egingo duen baina... oso oso gauza txarra da eta ez duzue sinistuko benetan.

Herri ondoko gain batean txoko bat zegoen, bertan, Lotus eta Pistacho bizi ziren, Lotus laukizuzen itxurako galleta bat zen eta Pistacho berriz rugbyko baloiaren formako fruitu lehor bat zen. Biak oso jatorrak, goxoak, bihotz onekoak eta oso lasaiak ziren. Benetako pertsonak ematen zuten baina janariak dira.

Lotus eta Pistachoren txokoan bi laborategi zeuden; bat Pistachorena eta bestea Lotusena. Pistachoren txokoa oso txukuna zen baina Lotusena pixka bat txukunagoa zen eta polita. Bertan Lotus eta Pistacho edabe magikoaren bila zebiltzan biak eta, baita topatu ere. Edabe majikoa osasuntsu sentitzeko eta pozez betetzeko produktua zen. A! Eta maitemindu ere egiten zuen. Eta beste gauza batzuk ere.

Halako batean Aner, lehiotik kuxkuxeatzen ari zen eta Lotus eta Pistacho herrira joan zirenean Aner txokora sartu zen edabea lapurtzera. Baina ondo ezkutatuta zutenez edabe magikoa ez zuen eramanez, beste edabe bat eramanez zuen. Beste edabe horrek, beste eragin bat zuen. Baina eskerrak ez zuela probatu bestela... txikitu egingo zen. Edo haunditu, ez dakigu zer egiten zuen edabe horrek.

Lotus eta Pistacho herritik bueltatu zirenean txokoan odol azarnak ikusi zituzten. Korrika batean edabe magikoa ezkutatuta zuten tokira joan ziren eta bertan zegoela konturatu ziren. Bazekiten Aner izango zela etxera sartu zena eta ez zuela edabe majikoa lapurtuko ez zelako oso listoa. Aner ez zen lapurtu zuena, beste

edabe bat lapurtu zuelako. Eta onena, ez zuela benetako edabea lapurtu, bestela...

Lotus eta Pistachok edabe magikoa hartu eta ondo zegoela ziurtatu zuten. Beraien edabea hartu zuten eta beraien tresnekin banatu egin zuten, edabea bukatzeko. Momentu batean gaizki irten zen beraien saiakera baina gero bai irten zen. Edabea hartu eta herrira jaitsi ziren, bertan herritar guztiei deitu eta denak elkartu ginen eta bakoitzari edabe apur bana eman zien. Hau dena ospatzeko jai bat antolatu zuten. Jai hori Edabe onenaren saria deitu zen AUPA! ONENAK GARA!!!! Aupa Lotus eta Pistacho!

Herritar guztiak osasuntsuak eta alaiak bihurtu ziren baina Anerrek bere beso bakar eta odoltsuarekin jarraitu zuen bizitzen. Anerrek egun horretan suerte txarra eduki zuen eta herritar guztiak pozik eta maiteminduta bukatu zuten. Handik lau egunetara Anerri odoletan zuen besoa gelditu zitzaion. Aner herrira bueltatu zen eta Lotus eta Pistachorekin egon zen Lotus eta Pistachok ikusi zuten Aner pertsona ona zela eta besoko odola gelditu egin zitzaiola eta Lotus, Pistacho, Aner eta herritarrak lagun oso onak ziren.

Lotus